

6. GENERO INDARKERIAREN BIKTIMEI ARRETA ESKAINTZEKO PROGRAMA

Gizarte Ekintzako Sailak genero indarkeriaren biktimei arreta eskaintzeko zerbitzua du eta honen barruan bai biktimen arretarako bai bortizkeriaren aurkako prebentziorako programa desberdinak garatzen dira.

Programa honek **informazioa eta laguntza ematen dizkie genero indarkeriaren biktima izan diren pertsonen**, Gizarte Ekintzaren Zuzendaritzaren eta beste departamentu edo instituzio batzuen baliabideak erabilita. Programaren arduradunek kasu bakoitzaren diagnostikoa egin eta esku-hartze plan bat adosten dute biktimarekin, hainbat bitarteko erabil ditzakeena: laguntza psikologikoa, aholkularitza juridikoa, laguntza ekonomikoa, hezkuntza-laguntza eta laguntza, kulturen arteko bitartekaritza eta bizileku baliabideak.

2024an, 263 pertsona berri, hau da, aurretik zerbitzuan artatu gabeak, artatu ziren:

- Indarkeria matxistaren biktimak: 197
- Familia barneko indarkeria: 14
- Sexu indarkeria: 30
- Beste kasu batzuk: 22

2024an programan sartutako indarkeria matxistaren biktimen artean, tratu txar mota hauek hauteman dira:

Tratu txar fisikoa	120
Tratu txar psikologikoa	211
Tratu txar ekonomikoa	34

Oharra: tratu txar motak konbinatuta eman ohi dira; horregatik, mota desberdinen batura artatutako emakume kopurua baino handiagoa da.

263 kasu berriez gain, 260 pertsona gehiago artatu dira, aurreko urteetan hasitako arretarekin.

Beraz, guztira, 523 izan dira genero indarkeriaren biktimei arreta eskaintzeko programan artatu diren emakumeak.

Ondoko taulan, programara jo duten emakumeek 2024an jaso dituzten laguntzak eta baliabideak ikus daitezke:

Laguntza psikologikoa	168
Laguntza sozio juridikoa	62
Aholkularitza eta informazioa	263
Larrialdietarako etxebizitzak	8
GFaren etxebizitzak – Egonaldi labur, ertain eta luzeko harrera	1
Larrialdiko txekea	8
Eusko Jaurlaritzaren diru laguntza (*)	8
Emakumeei laguntzea	14
Esku-hartze sozioedukatiboa eta psikosoziala	13

EJko etxebizitzaren zuzeneko esleipena	2

(*) Laguntza hauez gainera, hala badagokie, Gizarte Ekintzaren Zuzendaritzak izapidetu edo kudeatzen dituen gainerako diru laguntzak ere eskura ditzakete emakumeek (Gizarte larrialdietarako laguntzak, eta Lan Partekatuen Planeko laguntzak).